"HEZI+: PROIEKTUA KUDEATZEKO ETA GAINBEGIRATZEKO GIDA "



2026-2027

AURKIBIDEA

1. Sarrera eta proiektuaren helburua 2
2. HEZI+ proiektuaren helburuak 2
3. Proiektuaren neurriak eta esku-hartzeak 3
3.1. HEZI+ osatzen duten neurriak 3
3.2. Nahitaezko neurrien ezaugarriak eta garapen-baldintzak 3
4. Proiektuaren antolaketa eta garapena ikastetxeetan 4
4.1. Baliabideen, taldeen eta jardueren antolaketa 4
4.2. Ikasleen, saioen eta asistentziaren erregistroa 5
4.3. Parte-hartzeari buruzko datuen bilketa 5
5. Proiektuaren plangintza, jarraipena eta ebaluazioa 6
5.1. Jardueren hiruhilekoko plangintza 6
5.2. Garatutako jardueren jarraipena 6
5.3. Jardueren eta haien inpaktuaren ebaluazioa 7
5.4. Proiektuaren amaierako ebaluazioa eta memoria 7
6. He-Indartuz neurriaren kudeaketa Eskola Jardueraren Dokumentuaren (EED) bidez 7
6.1. Txantiloiak sortzea 7
6.2. EEDra sartzea eta HE-INDARTUZ taldeak sortzea 8
6.3. Modalitatea eta dagokion jarduera hautatzea 9
6.4. Taldeen identifikazioa eta hasiera-data 10
6.5. Parte hartzen duten ikasleak txertatzea 10
6.6. Irakasleen esleipena eta ordutegien konfigurazioa 11
6.7. Bertaratzeen erregistroa eta jarraipena «Notak eta faltak» atalaren bidez 12
7. Proiektua kudeatzea HIKU aplikazioaren bidez 15
7.1. HIKUra sartzea eta HEZI+ prozedura hautatzea 15
7.2. Ikastetxearen espedientera sartzea 16
7.3. Hiruhilekoko plangintzaren erregistroa 17
7.4. Plangintza aurkeztea eta Ikuskaritzak berrikustea 19
7.5. Hiruhilekoko jarraipena eta ebaluazioa erregistratzea 20
7.6. Jardueren jarraitutasuna hiruhilekoen artean 21
7.7. Prozeduraren amaiera 22
8. 2026-2027 ikasturteko kronograma 22

1. Sarrera eta proiektuaren helburua

HEZI+ proiektuak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2026-2027 eta 2027-2028 ikasturteetarako bultzatua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen hezkuntza-emaitzak hobetzea, ekitatea sustatzea eta ikasteko aukerak zabaltzea du helburu, hezkuntza-denboren eta-espazioen berrantolaketaren bidez.

HEZI+ proiektuak bost esku-hartze neurri jasotzen ditu: He-Indartuz, He-Hobetuz, He-Aberastuz, He-Elkarrekin eta He-Lagun izan.

Jarraibide hauen helburua da ikastetxeei HEZI+ proiektuaren antolaketa, kudeaketa eta jarraipena erraztea, 2026-2027 ikasturtean zehar gauzatu beharreko prozedurei buruzko orientabide praktikoak eskainita.

Bereziki, honako alderdi hauek lantzen dira:

- Ikastetxeari esleitutako neurri eta baliabideen antolaketa.
- He-Indartuz neurriko taldeak, jarduerak eta ikasleak Eskola Jardueraren Dokumentuan (EED) erregistratzea.
- Ikasleen asistentziaren jarraipena egitea, He-Indartuz neurriaren kasuan «Notak eta faltak» aplikazioaren bidez, eta gainerako neurrietan ikastetxearen berezko prozeduren bidez.
- Proiektuko neurri guztien jardueren plangintza, jarraipena eta ebaluazioa HIKU plataformaren bidez egitea.
- Proiektuaren kudeaketarako ezarritako gainbegiratze- zein aholkularitza-prozedurak, eta epeak.

Jarraibide hauek izaera praktikoa dute, eta osatu egiten dute Ikaskuntzaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzaren Ebazpena, zeinaren bidez ezartzen baitira 2026-2027 eta 2027-2028 ikasturteetan Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan HEZI+ proiektua diseinatzeko, garatzeko, jarraitzeko eta ebaluatzeko jarraibideak.

2. HEZI+ Proiektuaren helburuak

HEZI+ proiektuaren helburu nagusia da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen hezkuntza-emaitzak hobetzea, ekitatea sustatzea eta ikasteko aukerak zabaltzea, indartze-jardueren, hezkuntza-aberastearen eta eskola-komunitatearen parte-hartzearen bidez.

Horretarako, proiektuak honako helburu hauek ditu:

- Ikasleen konpetentziak eta emaitza akademikoak hobetzea, bereziki irakurmen-konpetentzia eta konpetentzia matematikoa indartuz, baita gainditu gabeko ikasgaietan arreta eskainiz ere.
- Ikasteko aukerak zabaltzea, ikasleen beharrei eta interesei erantzuten dieten hezkuntza-jarduera osagarriak eskainiz.
- Ekitatea eta inklusioa sustatzea, gehien behar duten ikasleei ikasteko eta laguntza jasotzeko aukera gehigarriak eskainiz.
- Ikasleen parte-hartzea eta ikastetxearekiko lotura indartzea, bizikidetza, ongizatea eta pertenentzia-sentipena sustatzen dituzten hezkuntza-esperientziak bultzatuz.
- Familiekin eta ingurunearekin lankidetza sustatzea, hezkuntza-komunitatearen baliabideak aprobetxatuz.
- Ikastetxearen etengabeko hobekuntzan laguntzea, garatutako jardueren plangintzaren, jarraipenaren eta ebaluazioaren bidez.

3. Proiektuaren neurriak eta esku-hartzeak

3.1. HEZI+ osatzen duten neurriak

HEZI+ proiektua bost neurritan egituratzen da: **He-Indartuz,** konpetentziak indartzera zuzendua edo gainditu gabeko ikasgaiak berreskuratzera; **He-Hobetuz,** ikasteko aukerak zabaltzera bideratua, jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren bidez; **He-Aberastuz**, kanpoko profesionalekin garatutako jarduerak barne hartzen dituena; **He-Elkarrekin**, familiekin eta ingurunearekin lankidetzan oinarritua; **He-Lagun izan**, ikasleei eta haien familiei bidelaguntza eskaintzera zuzendua.

Lehenengo hiru neurriak nahitaezkoak dira; He-Elkarrekin eta He-Lagun izan, aldiz, hautazkoak dira.

3.2. Nahitaezko neurrien ezaugarriak eta garapen-baldintzak

He-Indartuz. Bi modalitate aurreikusten ditu: Irakurmen-konpetentzia eta konpetentzia matematikoa indartzea, lehentasunez DBHko 1. eta 2. mailako ikasleei zuzenduta edo gainditu gabeko ikasgaiak berreskuratzea. Ikastetxeek taldeak eta saioak antolatuko dituzte antzemandako premien eta Hezkuntza Sailak esleitutako ordu-zuzkiduraren arabera.

He-Hobetuz. Ikastetxeek beren hobekuntza-helburuei lotutako jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak antolatuko dituzte, Ebazpenaren I. eranskinean ezarritako gutxieneko dedikazio ordutegia erabiliz. Jarduerek aurreikusitako zazpi ikaskuntza-ekosistemetatik gutxienez hiru hartu beharko dituzte barne.

He-Aberastuz. Neurri honen bidez, kultura-, zientzia-, teknologia-, arte-, kirol- edo ingurumen-arloetako jarduerak garatu ahal izango dira, kanpoko profesionalen esku-hartzea behar dutenean, Ebazpenean ezarritako finantzaketa- eta antolaketa-baldintzen arabera.

4. Proiektuaren antolaketa eta garapena ikastetxeetan

4.1. Baliabideen, taldeen eta jardueren antolaketa

Ikastetxeek HEZI+ proiektuko giza baliabideak, ordutegiak, espazioak eta jarduerak antolatuko dituzte, antzemandako beharren, hobekuntza-helburuen eta Ebazpenean ezarritako baldintzen arabera.

He-Indartuz: hezkuntza-indartzeen antolaketa
Ikastetxeek aukeratutako He-Indartuz modalitateari Hezkuntza Sailak esleitutako asteko ordu-kreditua eskainiko dute (4, 8 edo 12 ordu, DBHko talde kopuruaren arabera), eta, ikastetxearen berezko orduekin osatu ahal izango dute ebazpenean ezarritako baldintzak kontuan hartuta. Jardueren antolaketa aukeratutako modalitatearen araberakoa izango da:

Konpetentzien indartze-modalitatea. Ordu-kreditua modu orekatuan banatuko da irakurmen-konpetentziaren eta matematika-konpetentziaren artean. Jarduerak esleitzeko orduan konpetentzia horietan zailtasun handienak dituzten DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleek lehentasuna izango dute. Saioak 60 minutukoak izango dira, oro har, 6 eta 15 ikasle arteko talde txikietan antolatuko dira, halaber, taldeen osaerak antzemandako konpetentzia-beharrei erantzungo die. Ikasturte osoan zehar talde egonkorrak mantentzeko ahalegina egingo da, behar bezala justifikatutako salbuespenezko egoeretan izan ezik.

Gainditu gabeko edo gainditu gabe dauden irakasgaiak indartzeko modalitatea. Ikastetxeek antolaketa-malgutasun handiagoa izango dute ordu-kreditua indartze-jardueren artean banatzeko, ikasleek berreskuratu edo indartu behar dituzten irakasgaien edo eremuen arabera. Antzemandako hezkuntza-premietara egokitutako taldekatzeak ezarri ahal izango dituzte, eta, pedagogikoki egokia denean, talde edo maila desberdinetako ikasleak ere barne hartu ahal izango dituzte. Konpetentzien indartze-modalitaterako ezarritako irakurketaren eta matematikaren arteko banaketa orekatua eta 6 eta 15 ikasle arteko taldekatzea ez dira automatikoki aplikatuko modalitate honetan.

He-Hobetuz neurrian, gutxienez jarduerak Ebazpenaren I. eranskinean ikastetxe bakoitzarentzat ezarritako dedikazio ordutegia erabiliz antolatuko dira, eta ikasleentzat proposamen anitzak eta eskuragarriak eskaintzen saiatuko dira.

He-Aberastuz neurrirako, kanpoko profesionalen parte-hartzea eskatzen duten jarduerak planifikatuko dira, esleitutako finantzaketaren arabera.

Aukerako **He-Elkarrekin eta He-Lagun izan** neurriak, lehenago adierazi den bezala, ikastetxe bakoitzaren aukeren eta lehentasunen arabera antolatuko dira, familiekin eta hezkuntza-ingurunearekin lankidetza sustatuz.

4.2. Ikasleen, saioen eta asistentziaren erregistroa

Ikastetxeek nahitaez erregistratu beharko dituzte **Eskola Jardueraren Dokumentuan** (EED) konpetentzien indartzerako jarduerei eta gainditu gabeko ikasgaiak berreskuratzeko jarduerei dagozkien taldeak.

Horretarako, **HE-INDARTUZ** motako taldeak sortu beharko dituzte, dagokion jarduera hautatu, parte hartzen duen ikasleria txertatu, eta saioetako irakasleak nahiz ordutegiak esleitu beharko dituzte. (Ikus 6. atala).

Talde bakoitzaren hasiera-data ikasleei zuzeneko arreta ematen zaien lehen egunarekin bat etorri beharko da, data horrek zehaztuko baitu asistentziaren erregistroaren hasiera.

Taldeak konfiguratu ondoren, irakasle arduradunek ikasleen asistentzia erregistratu beharko dute «**Notak eta faltak»** aplikazioaren bidez, eta informazio hori eguneratuta mantendu beharko da jarduerak gauzatu bitartean. (Ikus 6. atala).

HEZI+ proiektuaren gainerako neurriak

He-Hobetuz, He-Aberastuz, He-Elkarrekin eta He-Lagun izan neurrietako jarduerak ez dira Eskola Jardueraren Dokumentuan (EED) erregistratuko, ezta «Notak eta faltak» aplikazioaren bidezko asistentzia-erregistroan ere.

Hala ere, ikastetxeek asistentzia eta **parte-hartzea kontrolatzeko beren prozedurak** ezarri beharko dituzte, jarduera bakoitzean zein ikaslek parte hartzen duen jakin ahal izateko eta jarraipena eta ebaluazioa egiteko informazio fidagarria edukitzeko.

4.3. Parte-hartzeari buruzko datuen bilketa

Ikastetxeek HEZI+ proiektuko jarduera bakoitzean ikasleen parte-hartzeari buruzko informazioa bildu eta eguneratuta mantendu beharko dute, dagokion neurria eta hiruhilekoa bereiziz.

Ikastetxeak ezarritako erregistro-prozeduren bidez jasotako datuak **HIKU** plataformako hiruhilekoko ebaluazioak osatzeko eta garatutako jardueren irismena baloratzeko erabiliko dira.

Informazioaren fidagarritasuna bermatuko da, parte hartu duten ikasleen zenbaketan bikoiztasunak saihestuz eta datu pertsonalen babesari buruzko araudia errespetatuz.

5. Proiektuaren plangintza, jarraipena eta ebaluazioa

5.1. Jardueren hiruhilekoko plangintza

Ikastetxeek HEZI+ proiektuaren esparruan garatuko diren **jardueren hiruhilekoko plangintza HIKU plataforman jasoko dute,** neurri bakoitzean egingo diren ekintzak barne.

Jarduera bakoitza banaka erregistratu beharko da eta bertan zehaztuko da zein neurriri dagokion, lortu nahi diren helburuak, zein ikasleri zuzendua den, aurreikusitako antolaketa eta lorpen-adierazleak.

Jardueren plangintza antzemandako beharrei eta ikastetxearen hobekuntza-helburuei lotuta egon beharko da, ikasturte osoan zehar jarduerek koherentzia izan dezaten saiatuz.

Hiruhileko bakoitzaren hasieran, ikastetxeek dagokion plangintza bete eta aurkeztu beharko dute ezarritako epeen barruan (ikus 8. atala). Hezkuntza Ikuskaritzak aurkeztutako informazioa aztertuko du, eta beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak edo argibideak eskatu ahal izango ditu.

Hiruhileko bat baino gehiago irauten duten jarduerak horietako bakoitzaren plangintzan jaso beharko dira, eta beharrezkoak diren egokitzapenak egingo dira hiruhileko bakoitzean.

5.2. Garatutako jardueren jarraipena

Ikastetxeek **HEZI+ proiektuko jardueren etengabeko jarraipena** egin beharko dute, jardueren gauzatzea egiaztatzeko, ikasleen parte-hartzea baloratzeko eta egon daitezkeen hobekuntza-beharrak identifikatzeko.

Jarduera bakoitzaren irakasle arduradunak, zuzendaritza-taldearekin koordinatuta, honako alderdi hauei buruzko informazioa bilduko du: jardueraren gauzatzea, ikasleen asistentzia eta parte-hartzea, aurkitutako zailtasunak, antzemandako aurrerapenak.

Jarraipen horrek aukera emango du beharrezkotzat jotzen diren antolaketa- edo doikuntza pedagogikoak egiteko, baita jardueren emaitzak baloratzeko ebidentziak eskuratzeko ere.

5.3. Jardueren eta haien inpaktuaren ebaluazioa

Ikastetxeek HEZI+ programaren esparruan garatutako **jardueren hiruhilekoko ebaluazioa egin beharko dute,** aurreikusitako helburuen betetze-maila, lortutako emaitzak eta hezkuntza-hobekuntzari egindako ekarpena baloratuz.

Ebaluazioa **HIKU** plataformaren bidez egingo da, jarduera bakoitzaren hasierako plangintza eta jardueraren garapenean zehar bildutako informazioa erreferentziatzat hartuta.

Arreta berezia jarriko zaie ikasleen parte-hartzeari, jardueren egokitasunari ikasleen beharrekiko, antzemandako aurrerapenei, aurkitutako zailtasunei.

Ebaluazio honen emaitzek **hobetu beharreko alderdiak identifikatzeko eta hurrengo hiruhilekoetako plangintza bideratzeko** balio beharko dute, beharrezkotzat jotzen diren doikuntzak txertatuz.

5.4. Proiektuaren amaierako ebaluazioa eta memoria

Ikasturtea amaitzean, ikastetxeek **HEZI+ proiektuaren garapenaren balorazio orokorra egin beharko dute**, HIKU plataforman erregistratutako hiruhilekoko plangintzak eta ebaluazioak erreferentziatzat hartuta. Lan hori errazteko, **amaierako memoriaren deskarga automatikoa gaituko da, HIKU aplikazioan ikasturtean zehar bildutako datuekin.**


Ebaluazio horri esker, honako alderdi hauek aztertu ahal izango dira: aurreikusitako helburuen betetze-maila, Ikasleen parte-hartzea, lortutako emaitzak eta neurri desberdinek ikastetxearen hezkuntza-hobekuntzan izan duten eragina.

Amaierako memoria ikastetxearen ebaluazio orokorraren parte izango da, eta erreferentzia gisa balioko du hurrengo ikasturtean HEZI+ proiektuaren plangintza eta hobekuntza egiteko.

6. He-Indartuz neurriaren kudeaketa Eskola Jardueraren Dokumentuaren (EED) bidez

6.1. Txantiloiak sortzea

Eskolaz kanpoko indartze-saioak EEDan behar bezala erregistratzeko, ikastetxeak «He-Indartuz» izeneko txantiloi espezifiko bat sortu beharko du. Txantiloi horretan, ikasleei zuzeneko arreta emateko saioei dagozkien ordutegi-tarteak jasoko dira.




6.2. EEDra sartzea eta HE-INDARTUZ taldeak sortzea


He-Indartuz neurriko indartze-taldeak erregistratzeko, ikastetxeak **Eskola Jardueraren Dokumentura** (EED) sartu beharko du, eta **«Taldeak»** atala hautatu.

Bilaketa-pantailan, **«HE-INDARTUZ»** hautatuko da «Talde mota» eremuan, eta **«Gehitu»** sakatuko da talde berri bat sortzeko.



Ondoren, «Taldearen xehetasunak» pantailan, nahitaezko eremuak bete beharko dira: Izena edo aliasa, H**E-INDARTUZ** talde mota, hezkuntza-maila, ikasgela, ordutegi-plangintza, aktibazio-data. Datuak sartu ondoren, «**Gorde»** botoia sakatuko da.





Garrantzitsua: HE-INDARTUZ taldeak kudeaketarako berariazko taldeak dira EEDan. Ez dira nahastu behar ikasleen talde ofizialekin, ezta irakaskuntzako ohiko taldeekin ere.

6.3. Modalitatea eta dagokion jarduera hautatzea

He-Indartuz neurriaren modalitatea taldearen ordutegi-koadroko saio bakoitzari esleitutako jardueraren bidez identifikatuko da.

Horretarako, **«Ordutegi-koadroa»** erlaitzetik dagokion saiora sartu beharko da, eta honako aukera hauen artean jarduera egokia hautatu:


- **Konpetentzia matematikoa.**
- **Irakurmen-konpetentzia (Gaztelania).**
- **Irakurmen-konpetentzia (Euskara).**
- **Irakurmen-konpetentzia (Bi hizkuntzetan).**
- **He-Indartuz gainditu gabeak.**

Lehenengo lau aukerak konpetentzien **indartze-modalitateari** dagozkio; «He-Indartuz: Gainditu gabeak» aukera, berriz, **gainditu gabeko ikasgaiak berreskuratzeko** modalitatean erabiliko da.

Jarduera hautatu ondoren, egindako aldaketak gorde beharko dira.







6.4. Taldeen identifikazioa eta hasiera-data

HE-INDARTUZ talde bakoitzak **erraz identifikatzeko moduko izena edo aliasa** izan beharko du, bereziki ikastetxeak indartze-talde bat baino gehiago antolatzen dituenean. Gomendatzen da erabilitako izendapenek garatzen den jardueraren hezkuntza-mailaren edo bien erreferentzia jasotzea.

Aktibazio-data ikasleei zuzeneko arreta emateko saioak hasten diren egunarekin bat etorri beharko da; izan ere, data horrek zehazten du «Notak eta faltak» aplikazioan asistentzia erregistratzeko epearen hasiera.

Jarduerak ikasturtea amaitu baino lehen bukatzen badira, dagokion desaktibazio-data ere adierazi beharko da.


Eremu horiek **6.2 ataleko hirugarren pantaila-argazkian** identifika daitezke, taldearen xehetasunen formularioari dagokiona. Formulario horretatik bertatik datuak kontsultatu eta eguneratu ere egin ahal izango dira.

6.5. Parte hartzen duten ikasleak txertatzea

HE-INDARTUZ taldea sortu ondoren, ikastetxeak indartze-saioetan parte hartuko duten ikasleak txertatu beharko ditu.

Horretarako, taldearen xehetasunen pantailatik, **«Ikasle Taldeak»** atalean sartuko da, eta **«Gehitu»** aukera hautatuko da dagozkion ikasleak sartzeko.

Taldearen osaera **eguneratuta mantendu beharko da ikasturte osoan zehar**, egiten diren alta eta baja guztiak erregistratuz; horrela, asistentziaren jarraipenak **parte hartzen duen ikasleria** behar bezala islatuko du.



6.6. Irakasleen esleipena eta ordutegien konfigurazioa

Ikasleak taldean sartutakoan, ikastetxeak **irakasle arduradunak esleitu eta indartze-saioak konfiguratu** beharko ditu EEDan.

Irakasleak sartzeko, taldearen xehetasun-pantailatik **«Taldeko tutoreak»** atalera joan behar da, eta **«Gehitu»** aukera erabiliko da.

Ondoren, saioen ordutegia konfiguratu beharko da dagokion ordutegi-txantiloiaren eta taldeko **«Ordutegi taula»** atalaren bidez. Saio bakoitzean behar bezala identifikatuta geratu beharko dira **eguna, ordua, jarduera eta esleitutako irakaslea** eta indartze-neurriaren benetako antolaketarekin bat etorri beharko du.

Datu horiek kontsultatzeko edo aldatzeko, dagokion saioaren **«Editatu»** aukera erabiliko da.


Prozedura hori 6.3 atalean jasotako hiru pantaila-argazkien sekuentzian ikus daiteke. Bertan erakusten dira taldearen ordutegia, saio baten ediziora sartzeko bidea eta dagokion jardueraren hautaketa.

Ikastetxeak informazio hori eguneratuta mantendu beharko du, ordutegietan, jardueretan edo irakasle arduradunetan aldaketarik gertatzen denean.

6.7. Bertaratzeen erregistroa eta jarraipena «Notak eta faltak» atalaren bidez

He-Indartuz programan parte hartzen duten ikasleen bertaratzea, konpetentziak indartzeko modalitatean zein gainditu gabeko ikasgaien berreskurapenerako modalitatean, **«Notak eta faltak»** aplikazioaren bidez erregistratu beharko da.

Horretarako, ikastetxeak aplikazioan sartu eta **«Lan-taldeak»** → **«Indartuz/HE-Indartuzeko bertaratzea»** aukera hautatuko du.



Taldearen eta saioen hautaketa


Behin barruan, dagokion HE-INDARTUZ taldea eta kontsultatu nahi den aldia hautatuko dira. Aplikazioak aurrez EEDan konfiguratutako saioak erakutsiko ditu, taldearen aktibazio-datatik aurrera.


Saio bakoitzerako adierazi beharko da burutu den ala ez, erabilgarri dauden aukeretako bat hautatuz:

- Egindako saioa.
- Irakaslearen absentziagatik egin gabeko saioa.
- Beste arrazoi batzuengatik egin gabeko saioa.

Saio bat egin ez denean, egoera hori dagokion aplikazioan erregistratu beharko da.

(Oharra: Dokumentu hau egin zen unean, ez zen aukerarik egon pantaila-irudi guztiak euskaraz sortzeko. Hori dela eta, dokumentuan txertatutako zenbait pantaila-irudi gaztelaniaz ageri dira eta Indartuz-i egiten diete erreferentzia. Nolanahi ere, horrek ez dio eragiten dokumentuaren edukiari ezta emandako jarraibideen baliozkotasunari ere.)






Ikasleen bertaratzeen erregistroa

Egindako saioetan, irakasleek saiora bertaratu den ikasle bakoitzari dagokion laukitxoa markatu beharko dute.

Garrantzitsua da gogoratzea bertaratzea erregistratzen dela, ez ez-etortzea. Beraz, saio bakoitzean benetan parte hartu duten ikasleen laukitxoak baino ez dira markatu beharko.

Informazioa osatu ondoren, egindako aldaketak gorde beharko dira.




Bertaratzeen asteko itxiera

Asteko informazioa osorik eta zuzena dela egiaztatuta, **asteko itxiera** egin beharko da.


Ardura hori **ikastetxeko zuzendaritzari edo ikasketa-burutzari soilik dagokio**, «Astea itxi» aukeraren bidez.

Itxiera egin ondoren, astea blokeatuta geratuko da editatzeko. Daturen bat zuzendu behar bada, zuzendaritzak edo ikasketa-burutzak **«Astea berriz ireki»** aukera erabili ahal izango du, beharrezko aldaketak egin eta astea berriro itxi.





Asteko itxierak aplikazioak ikasleen asistentzia-ezarekin lotuta aurreikusitako jakinarazpenak bidaltzea aktibatzen du. Horregatik, **funtsezkoa da erregistroak egiaztatzea itxiera egin aurretik.**



7. Proiektua kudeatzea HIKU aplikazioaren bidez


7.1. HIKUra sartzea eta HEZI+ prozedura hautatzea


HIKU aplikaziora sartzeko, ikastetxeek Hezkuntza Sailaren atarian sartu eta ohiko erabiltzaileekin identifikatu beharko dute.


Behin barruan, **HIKU** aplikaziora sartu eta **HEZI+** prozedura hautatu beharko dute.

Ikastetxeak hainbat prozedura erabilgarri baditu, HEZI+ prozedurari dagokiona hautatzen duela ziurtatu beharko du, proiektuaren informazioa eta jarduketak eskuragarri izateko.

Baimenen kudeaketa: Ikastetxeko zuzendaritzak **BeA** figurari sarbidea gaitzeko aukera izango du, **«Segurtasunaren administrazio eskuordetua»** aplikazioko rolen kudeaketaren bidez.









7.2. Ikastetxearen espedientera sartzea

HEZI+ prozedura hautatuta, HIKU aplikazioak ikastetxerako erabilgarri dauden espedienteen zerrenda erakutsiko du.

Proiektuaren informaziora sartzeko, **2026-2027 ikasturteari dagokion espedientea hautatu beharko da.**

Espedientea irekitzean, xehetasunen pantailara sartuko da. Pantaila horretatik proiektuaren jarduketak kontsultatu eta kudeatu ahal izango dira, baita haren hiruhilekoko plangintza eta ebaluazioa ere.






7.3. Hiruhilekoko plangintzaren erregistroa


HEZI+ espedientetik, ikastetxeak **dagokion hiruhilekoko plangintzaren atalera** sartu beharko du.


Jarduera bat gehitzeko, **«+»** botoia sakatu beharko du, eta formularioa bete, dagokion neurria hautatuz eta aurreikusitako jarduerari buruz eskatzen den informazioa sartuz.

Jarduera bakoitza **banaka** erregistratu beharko da, mota bereko neurrikoak direnean ere. Behin osatuta, informazioa gorde egingo da, eta prozedura bera errepikatuko da gainerako jarduerak gehitzeko.


Aplikazioak plangintza zirriborro gisa gordetzeko aukera ematen du, behin betiko aurkeztu aurretik. Komeni da hiruhilekorako aurreikusitako jarduera guztiak behar bezala txertatu direla egiaztatzea Hezkuntza Ikuskaritzara bidali aurretik.




1. Planificacion de Actividades
Actividad:
Datos de notificación
Móvil*:
Email*:
GUARDAR
PRESENTAR


1. Planificacion de Actividades
Actividad: Nombre Actividad 1
Actividad: Nombre Actividad 2
Datos de notificación
Móvil*:
Email*:
GUARDAR
PRESENTAR


1. Planificacion de Actividades
Actividad: Nombre Actividad 1
Actividad: Nombre Actividad 2
Datos de notificación
Móvil*:
Email*:
GUARDAR
PRESENTAR





7.4. Plangintza aurkeztea eta Ikuskaritzak berrikustea

Hiruhilekoko jarduera guztiak erregistratu ondoren, ikastetxeak **«Aurkeztu»** aukera sakatu beharko du plangintza Hezkuntza Ikuskaritzara bidaltzeko.

Ikuskaritzak aurkeztutako informazioa berrikusiko du, eta **baliozkotu edo ikastetxera itzuli** ahal izango du, behar diren zuzenketak egin edo argibideak eman ditzan.

Itzuliz gero, ikastetxeak eskatutako aldaketak egin beharko ditu, eta **plangintza berriro aurkeztu** HIKUren bidez.


Garrantzitsua: informazioa zirriborro gisa gordetzeak ez du esan nahi plangintza aurkeztu denik. Ikastetxeak egiaztatu beharko du plangintza behar bezala bidali dela ezarritako epearen barruan.

7.5. Hiruhilekoko jarraipena eta ebaluazioa erregistratzea


Ebaluazio-aldia gaituta dagoenean, ikastetxeak HIKUko HEZI+ espedientera sartu beharko du, eta **dagokion hiruhilekoaren ebaluazioa hautatu.**

Planifikatutako jarduera bakoitzerako, haren garapenari, ikasleen parte-hartzeari, lortutako emaitzei eta egon litezkeen hobekuntza-proposamenei buruz eskatzen den informazioa bete beharko da. Era berean, aplikazioak eskatzen dituen ikasleen parte-hartzeari buruzko adierazle orokorrak ere bete beharko dira, jarduera bakoitzaren banakako ebaluaziotik bereizita.

Jarduera guztien ebaluazioa osatu ondoren, ikastetxeak **informazioa gorde eta aurkeztu** beharko du, Hezkuntza Ikuskaritzak berrikus dezan, aurreko atalean deskribatutako prozedura berari jarraituz.








7.6. Jardueren jarraitutasuna hiruhilekoen artean

Jarduera batek hurrengo hiruhilekoan jarraipena duenean, HIKUk jarduera hori **plangintza berrira eramateko aukera** ematen du, informazio guztia berriro sartu beharrik gabe. Ikastetxeak eramandako datuak berrikusi beharko ditu, eta beharrezkoa denean eguneratu.



7.7. Prozeduraren amaiera

Hirugarren hiruhilekoko ebaluazioa osatu eta Hezkuntza Ikuskaritzak berrikusi ondoren, HIKUn HEZI+ proiektuaren urteko jarraipenaren itxiera egingo da.

Ikastetxeak aplikazioak sortutako **azken memoria deskargatu beharko du, eta HEZIGUNEAra igo 2027ko ekainaren 22tik 25era bitartean.**

Izapide hori eginda, amaitutzat emango da 2026-2027 ikasturteari dagokion prozedura.

8. 2026-2027 ikasturteko kronograma

Ikastetxeek hiruhileko bakoitzeko plangintzak eta ebaluazioak HIKUn bete eta aurkeztu beharko dituzte, honako egutegi honen arabera:

Hiruhilekoa	Planifikazioa	Ebaluazioa
Lehenengoa	2026ko irailaren 15etik urriaren 30era	2026ko azaroaren 16tik abenduaren 18ra
Bigarrena	2027ko urtarrilaren 7tik otsailaren 5era	2027ko otsailaren 22tik martxoaren 19ra
Hirugarrena	2027ko apirilaren 12tik maiatzaren 7ra	2027ko maiatzaren 17tik ekainaren 18ra
garren hiruhilekoko ebaluazio-prozesua amaitu ondoren, ikastetxeek HEZI+ proiektuaren **azken memoria deskargatu beharko dute HIKUtik**, **eta HEZIGUNEAra igo** (Zuzendaritza-taldea/Ikuskaritzarekin partekatutako dokumentuak). Izapide hori **2027ko ekainaren 22tik 25era** bitartean egin beharko da. Ikastetxeko zuzendaritza arduratuko da memoria ezarritako epearen barruan behar bezala aurkeztu dela egiaztatzeaz.		

Hasierako epearen malgutasuna: Jarraibide hauek ikasturtea hasita dagoenean luzatu direnez, malgutasun-irizpidea aplikatuko da HIKUn lehen hiruhilekoko plangintza aurkezteko epeari dagokionez.